

Gure enpresak funtziona dezan, lau baliabide mota beharko ditugu: fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak, eta finantza-baliabideak.

Lehenengoetan, web-gunearentzat eta bestelako kontuentzat ordenagailua, bulego bat, eta dei eta mezentzat telefono bat beharko genituzke.

Ondoren, baliabide intelektuala marketing teknikak izango liratezke.

Gainera, giza-baliabideak ere beharko genituzke, hala nola, marketing arduraduna, diruaren gestio arduraduna, inbertsorea, saltzailea, etab.

Azkenik, finantza-baliabideetan egongo litzateke hasierako eta ondorengo inbertsioak, eta salmenten irabaziak.